Katamalo

Gotzon Barandiaran

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2007 Gotzon Barandiaran
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2007ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Katamaloa eranzteko ahalegin asmo apal hau
izena agertzerik gura ez deuen bateri zor dotset.
Alboan ez baneu, izangureak ustelduko ninduen.

Ama, Alex, Ali, Peru eta Iraiatxuri

eskerrik asko:

katamaloa jendaurrean eranzteko lotsarik izan ez duten
Bihotz Bakartien Klubeko kideei:
Aintzina Lekue, Alex Arregi, Gorka Mugarza,
Gorka Urbizu eta Nerea Urbizuri

Aritz Albaizarri

Kukubiltxotarrei

biderako kinkela isiotuta mantenarazten didatenei

Ez nire iritzia mezukeriatzat hartu,
naizena baino askoz beherago
makurtu gura dut burua,
gangarrak ederrago ditut kokospean.
Gure aurrekoen oinatzen gainean jarri
eta aldaezintzat ditugula jakiteak
ikaratu egin nau.
Salto egiten ahalegindu naizelarik
ezkerreko oina aurrekoen arrastoan erori zait.

Eskuinekoa airean utzi dut.

LAR ESTUTZEN DUTEN SOKAK NASAITU

OSTONDU SAKON POZA

Ostondu sakon poza,
bila dabiltza, diotenez,
mila polizia inguru.
Mozorrotu trapu zaharrez
osterantzean, seguru,
minez behar dute goza.

Ostondu sakon poza,
badatoz usnaka
ospela eta bekaitza,
bi hankatan edo launaka.
Harri eta guzti dator ekaitza
epeldu ezina izango da hotza.

Ostondu sakon poza,
aldarrikatu zuk halako malerusik
ez duela nehork ezagutu,
malkoak ez dizula egiten hutsik,
ezin zaizula euripean lehortu
pozminez duzun bihotza.

Ostondu sakon poza,
zaude beti atezuan,
ez lokartu, atzarri,
dantzatu atzeskuan,
ez diezazutela igarri
zoriontsua denaren lotsa.

SUTAN

Txondorra herriko plazan.
Sutarako begizkoak,
bekaitzaren ezpalak,
irain gordeak,
mesede damutuen multzoa,
arrotzek okupaturiko oheak,
bidaide ahoberoak,
adarretan pausatzen diren helmugak,
sutarako denak.
Ikuskizun berdingabea,
inkisizio demokratikoa,
garretan doazen aieneek,
elkar estutu eta mina disimulatu
beharrean dauden gorpuzkerek
bestelakorik iradokitzen badute ere.
Izatez, lekukoen artean badira
uholdea erregutzen dutenak,
bihotzonekoak beste ankerrak.
Samina euritan lokatz bihurtzearen aldekoak,
iragana urasetu eta estoldetan

desagerrarazi gura dutenak.
Baina mozorrotu egin dira,
ez dago zein diren jakiterik.

BEGIRUNEA HERRARI

Herra, bekaitzez betea,
oihuka hasi zait:
Nahikoa da!
Luzaz nirekin olgetan ibili zara eta
nazkatu naiz!,
ez nauzu berriro aldebikotzat hartuko!,
ez nauzu aldartearen kulunkan lozorrotuko!
Zalantzarik izan ez dezazun korapilatuko natzaio
onginahiari, maitasunari, estimuari
eta jagoitik
sekula ez nauzu igarriko ez bada
zinez sentitzean, barnemuinetan
zer den egia, zer den justua.
Herra nauzu eta begirunea zor didazu.

BAKEAN UZTEN EZ GAITUEN ESKARIA

Zortzi urteko igande guztiak
eskari baten atzean
autoetan doazenen begiak
begirada bihurtzen dira lantzean

Gaur gero egunkariek diotena
eta gaugiro hordien ostea
darabiltzagu mintzagai
asperduraren ardagai
denborari denbora ostea
epai gabeko kondena

Zortzi urteko igande guztiak
eskari baten atzean
neguko goiz bustiak
errutinaren latzean

Eutsiko diogu baina
nekatuko da imana
paisaiak irentsiko gaitu

arbola eta guzti bahitu
lakartuko da laztana
ohiko diosal destaina

Zortzi urteko igande guztiak
eskari baten atzean
kargu hartzen digu astiak
desagerraraztean

Gehienak dabiltza ostera
egunak beste ordu
naufragoak balira legez
ni neu naiz zu inola ez
borrokak saria gor du
askori esker da norbera

BERANDUEGI ETXERATUKO NAIZ

Koadrodun amantala,
ur beroak gorritutako eskuak,
lapiko langileen lurruna,
irrati handiustekoaren zaratotsa,
lehortu arte xukatu beharreko
udako egunetako gosari ordua.
Lagunartera batu baino lehen
argibideen zerrenda beti hurrenkera berekoa
gogorarazten zenidan:
Ezezagunekin ez joateko, ez dagoela fidatzerik,
asmo okerreko jende asko dabilela munduan,
eskuak beti poltsikoetan gordetzeko,
lapurtzea bekatu dela ez bada bizirauteko,
niretzat gura ez dudana besteei ez desiratzeko,
erantzunen hasieran ezetz eta amaieran baietz
esateko.
Buruarekin gora eta behera egiten nizun baina
igo beharreko maldak eta zuhaitzak zenbatzeko.
Orain orduko haiek gogoratzen ditut inon
oheratzean.

Orain neu naiz ezezaguna,
ez fidatzekoa, asmo okerrekoa.
Orain maldak zein zuhaitzak igotzea baino
betebehar nekezagoak hartu ditut eta
berandu etxeratuko naiz, beranduegi.

GURARIKA

Goizero, mesanotxean utzi zenituen giltzak
sarrerako atearen kanpoaldean jarri
eta eguneroko lanetara biltzen naiz.
Gosariaren osteko harrikoa egin bitartean
leihotik lekora begira egiten dut ihes.
Espaloiaren bestaldean zaude
begiak igurtzi eta igurtzi,
ia lekutik atera arte.
Diozu: etzi datorren egunaren ostean itzuliko naiz,
sasiotan masustarik ez dagoenean itzuliko naiz,
ez lehenago.
Gauero, sarrerako atearen kanpoaldean jarritako
giltzak
mesanotxera itzultzen ditut.

AHOTAN IZAN NAZATEN

Mila urteren buruan
atzamarrik gabe
eskatuko dut hitza:
zera, uste dut...
Baina urrutiegi izaki
ez naute aintzat hartuko,
aurpegia antzemango didaten beldur
ez naiz hamaika kilometrora
baizen hurreratuko.
Ez dago atzamarbiderik!
amore emango dut
(eskubideek euren buruez beste egingo dute
ordurako).
Ahalegindu naiz, banoa afaltzera!
aldarrikatuko dut.
Belarritan izan nazaten
mila urteren buruan,
besorik gabe
kantatuko ditut ereserkiak,
geureak zein mundukoak,
gorritu baino lotsatu egingo naiz.

Ez dudanez berba bakar bat neure izango,
besaulkietara itzuliko naiz.
Goiz batean, hormara begira onartuko dut:
(ispiluek mila zatitan puskatuko dituzte
eskubideak ordurako)
Ez naute ez ahotan ez belarritan izan,
ezta arbolarik zaharrenaren sustrairik mendreenean
ere,
horrexegatik ekin behar diot orain eta hemen.

IRUNTZI DANA

Zabaldu ahoa
iruntzi dana
berba gaiztorik
esan ez dagizun
zarratuko dizut bizia

Zein gozoa den pozoia
erreinua oraleku duenarentzat

Zabaldu ahoa
iruntzi dana
berba okerrik
idatzi ez dagizun
luzatuko dizut bizia

Zein gozoa den pozoia
tronua oraleku duenarentzat

Zabaldu ahoa
iruntzi dana
berriz berbarik

egin ez dagizun
ukatuko dizut bizia

Haserretu zaitez
egin gedar
irriz duzu heriotza

BERBA HIGATUAK

Nazkatu egiten nauzu
egunero erabiltzen dituzun
berba ezagunegi horiek
ahoa belarrietaraino
zabalik ahoskatzen dituzunean.
Zeureak ez beste inorenak
direlakoan zaude oker,
agurtzen dituzun guztiek
gauza bera azaltzeko
gordetzen dituzte
etxerako giltzarian.
Nazkatu egiten nauzu,
zure antzera jipoitzen ditudalako
zureak nireak baino ez diren
berba puta higatuegi horiek.

GOGOTIK ERORI

Ama eredugarria naiz,
gidaliburuetakoa.
Eguna lau gedar, bost agur,
sei plater eta zazpi sorbalda kolperekin
iragan dezakedala sinetsarazi dizuet,
pozik nagoela
urdindu zaizkidan ileek
lantzean autobusa hartzeko
aitzakia ematen didatelako.
Ahaztu baduzue ere,
neu hurbildu nintzen zuen lurretara,
neuk ikasi nuen zuen berbakera,
besarkadez eskertu nizuen harrera.
Arreta eskea mendekutik banandu eta
zenbat aldiz uzkurtu behar dut begirada?
Helbide ezezagunen babesa atzendu arren
ez dute sakonera nahikoa nire begizuloek?
Mina ematen dizuelako
ez didazue galdetzen
zerk mintzen nauen,
gogotik erori zaizue

banaizela zuek gabe ere.
Isilik zaudete,
alboan egotea,
diodanarekin bat egitea
nahikoa dela deritzozue.
Horrela antzezten dizkidazue
maitasuna
elkartasuna
adiskidetasuna
(eta berba potoloegi horiek).

ENDURANCE

Emakume batek
balkoitik behera salto egin zuen,
senarrak egunero jipoitzen zuen.
Umedun zegoelarik
bere buruaz beste egin zuela
idatzi zuten polizia txostenetan.
Baina ez zuten idatzi
gurago izan zuela
alabagaia aldean eroan
bizirauteko izenik aurkitu ez ziolako.
Auzokoek diote andra ederra zela:
metroa eta laurogei,
itsaso begi zabalak,
ikatz azal leuna
eta Nigeria ohoratzen zuen
madari gorputza zituela.
Amak Endurance izena jarri zion.
Endurance: eutsi.
Sarritan, jabeek
ihes egiten diote izenari,
ez diote egundo antzik hartzen.

ZERBAIT GARRANTZITSUA

Aitortu zidan:
Zerbait garrantzitsua
esan gura dut,
aintzat ez nauzuenok
isilarazteko bestekoa,
azkarrenak moteltzeko modukoa,
belarririk gabeko eztabaidan
arrazoiak musututs uztekoa.
Garrantzitsua zaizuen zerbait
esan gura dut,
ezen
zuetako inork ez nau maitatu behar? galdetzean
oihartzunak ihardesten baitit,
ezen
lagunak eta egunak eskutik desagertzen zarete?
itaundu orduko
etxerako tenorea egiten baitzaizue.
Zuentzat garrantzitsua zer den
jakin gura dut,
zerk artegatzen dizuen gogoa,
zenbatekoa den arretaren balioa.

Halakorik baduzu,
gorrak minduko dituen
berbaren jabe bazara,
utzidazu edo mailegatu
astebetez, ez gehiago,
osorik itzuliko dizut.

ATZEMAN DUTE LAPURRA

Atzeman dute lapurra
urteetan ebatsitako
berbak eta guzti.
Polizien telebista kateek erakutsitako irudietan,
harrituta begiratu die
diruz-lagunduta zituen hiztegiei,
atsekabeturik oroitu du
sobornoetarako ez dagoela zekenik.
Ez ei dute torturatu beharrik izan,
ez baitago, antza, torturatu beharrik.
Borondatez aitortu du non nori noiz:
albistegietan, erredakzioetan,
batzar nazionaletan, batzorde exekutiboetan,
berrehun euro banatik gorako bazkalondoetan,
izenburu hutsaletan, pankarta maiztuetan,
komunikatu isilduetan, hileta antzeztuetan.
Aske utzi dute lapurra
urteetan ebatsitako
berbak eta guzti,
ez ei dute aitortu duena ulertu.
Artean, kaltetuek gaztigua ebatzi

eta heriotza zigorrera kondenatu dute,
hilketa mugagabea egotzi diote,
aurrez, denboraz, odol hotzean, anker
egituratuko berbazidioa.

Itzultzaileak ikusle oldearen
hanka azpietatik ihes egin eta
asilo politikoa eskatu du
hizkuntzarik ez dagoen herri batean.

OTZARA GAINEAN HYDE PARK

Otzara batean igota
Hyde Park.
Ez ditugun plaza guztietan
isildutakoak gurabeste errepikatu,
ezinesanari zorrak ordaindu.

Otzara batean gora
Hyde Park.
Ukitzen ez dugun lurrean
zarata aztoratzen duen oihua,
ezkilak gortzeko arrana.

Otzara baten tontorra
Hyde Park.
Zerua makurtzen den lurraldean
lurraren pare dut konsigna,
zalantzez garaitzekoa agindua,
hankamotzaren espaloia lerrokatzea,
Hyde Park bete otzara.

NAHI GENUENA

Ezpainak ardotan,
irri aizuna.
Pozten zarela baina
ez nauzula gogoan.
Ankerra berez,
bihozgabe ez bagina zinez,
ikusi arte
egongo gara.

Urte bete gutun
ez da iragan.
Lanbroak hartu dizu
esperoa.
Argiontzi itsua bularrean daukat.

Zu naiz urtetan nahi genuena,
zu naiz.

BETAZALAK ERAUZTEAN

Desagertu egiten zara
ispiluaren aurrean
margotzen zaren bakoitzean

Orduan zeu zara hizpide
zeu zara laudorio
ez duzu parekorik

Amak ez daki nor zaren ez zarenean
are gutxiago ispiluaren aurrean
margotzen zaren bakoitzean

Zuri begira daude esamesak
zutaz mintzo dira begiradak
zu izateko suizidatu dira
nortasun agiriak

Baina horrek guzti horrek
ez dizu deus balio
lekukorik ez badago

Soilik begiak itxitakoan
itzultzen zara zeugana
betazalak erauztean

HAUTSITAKO AULKIAK

Erletxeta auzoko lurpebidearen alboan
auto bat geratu da.
Gizon batek leihoa jaitsi eta
zenbatean zimeltzen zara, bekatugaia?
zenbatean idortzen zara, lore hila?
galdetu dio.
Eskertzen dizut lirikotasuna baina
hamar euroren truke jango dizut zakila,
hogeita hamarrean utziko dizut larrua jotzen,
erantzun dio.
Lurpebidearen alde bateko horman
afixa koloretsuak daude:
Malaisiako tigre fierrak,
zaldi gaineko malabaristak,
pianoa atzeko atzaparrekin jotzen duten elefanteak,
sareen aurkako trapezistak,
munduko zirkurik handiena!
Beste aldeko hormari begira dagoen katuak
mina bustita garbitzen du burua
bietan jarrai eta oferta 2x1 irakurtzen duen
bitartean.

Erratza, zarama-poltsak eta hautsitako aulkiak.
Asma nezake zer duten batzeko, zer sobera.
Ez, ordea, zein lorezainek hautsi dizkien aulkiak,
zein lorajagolek behartu gura dituen
beherago jesartzera.
Erletxetako lurpebideko emakumeak
ez ditut egundo agurtu, nahiz egunero ezagutu,
nahiz gogoa izan aulkiak konpontzen laguntzeko.

SOKA LABUR

Gezurra esan nizun
oihartzunak egia
itzuliko zizulakoan

Batzuetan ez dago jakiterik
izena edo lanbidea
zein egokituko diguten lehenik

Deitzeari utzi zenion egun batean
eta nik zure ahotsa entzuten dut
telefonoa hartzen dudan bakoitzean
Berdin dio
berdin dio zein adinetakoak diren
elkar ikusi gabeko egunak
Isildutakoak errepikatzen nabil ordutik

Min bizi batek hil zuen gure aita
barrutik bizia zabaldu zuen
min batek
gugan iraunarazten du
haren bizia

Indarra arratsarekin
galtzen zuen amamaren deia
entzun dut berriz
Gurago nuke berton balego
berriz erakusteko
zenbat ziren
ontza bat
azunberdi
kantara bete
Besook ezgauza ditut
egungo neurrietarako

Behiaren gutuna jaso dut postontzian
Adeitsu baina kexu agertu zait
atzo jan gabe utzi zuen bitxilorea
gaur hesi baten bestaldean dagoelako

Umetan urratu nituen belaunok
jada ez dute lurrik igurtzi nahi
Eta itxaropenak urraraziko dizkit
odoletan hasi arte?

Atzamarrei begira nago
Kosta egiten zait ulertzen
zergatik ez zuten planto egin
hamarrera iristean
zergatik ez ziren nahikotu

Ez dakit zertarako baina agian
neure bizitzako maitasuna aurkituko dut gaur
negarrik gabeko egun honetan
Bizitzako maitasuna aurkitu?
Zer esan gura du horrek?
Zein hizkuntzatan du jatorria?

Otalorea hazi da
alde egiteko autobusa
hartu zenuen geltokian
Zaindugabeko lorategia da
zure oroitzapena

Eskuineko behatzean
eraztuna daraman neska
hankaz gora ezkondu ote da?

Ahuspez
lurperatzen bagaituzte ere
ezingo diogu heriotzari
atzea eman

Olgetan zaude
oihan arriskutsuetan
planeta niretzat ezezagunetan
hegan egiteko besoak jasotzea baino ez duzula
Alde egiteko erregutu didazu
nagusien berbakera honek
elkor bihurtzen dizkizula araoak

Hamasei urterekin hautsi nuen garondoa
gogoan ditut eguna eta arrazoia
Begira-begira egon eta
nirea besteena ez bezalako
zilborra dela konturatu nintzen egunean
hautsi nuen garondoa
Gorra naiz ordutik

Kristalari jasangaitza zaio ispilua
dena ikusi dena jakin behar duen berekoia
eskuinekoa ezker erakusten duen iruzurtia
Konplize izateari utzi gura dio
albait arinen sorlekura itzuli
gardena izatearen ardurabakokerian bizi
erakusleihoetarako izan gabe

Neuk ere tiro egin gura nuen
baina hemen ez
hemen tirogaien hurbiltasunak
kikildu egiten ninduen
Zipriztinduko ez ninduten zauriak
eragiteko prest nengoen
baina hemen ez
hemen urraturik txikienak
itsasoak zabaltzen ditu

Salto egin ezinik odolustu da belarra orkatiletatik

IZERDIAK KATAMALOAREN SOKAK USTELTZEN DITUELA PROFITATUZ

BURUBAKO

Neure urratsei aurrea hartu ezinik
hasi naiz bakarrizketan,
erosteko edo saltzekoen zerrenda osatzekotan.
Aspaldian inguruan dabilzkidanen emaria datorkit:
urtarorik gabeko sasoiak,
lerro zuzenegiak,
burua apurtu arteko behaztopak,
azken porrot berritzaileena,
euren etxeetatik ohildutakoak,
jostorratz argal eta hari ikusezinak,
heroi apaletan azkenak,
laratzik bako sutondoak,
adar malguen topekak,
sasiadiskideak,
hurreko arrotzak,
gorritu ezin diren izarrak.
Ustekabean, kantoian eskuinera egin
eta belarriko hautsak harrotzean,
burua erori egin zait.
Auzokoek miraz begiratu didate,
euren artean murmurikatu dute

aspaldian hartu behar zidala erabakia buruak,
zertan ibili ote zen sufrimendua luzarazten
horren buru gaztea
horren gorputz zahartu jeloskorrarekin.

Zeregin ezean nago orain, burubako,
alderrai mindua dut hanka banako
aukeratuko dut nork agindu ez daukadalako
ez naiz lekutik mugituko heriotza halako
abandonatuko ez nauen burua behar dut, sekulako.

ARGAZKIEKIN ZORRETAN

Zinez, argazki zaharra, azkenekoz natorkizu,
zorrak kita ditzagun lehen baino lehen.
Egun ez nau ikaratzen trumoiaren durundiak,
iluntasunak ez dit loa galarazten.
Itzaletan oroimena ere
bidezidorrak argiztatzen hasi zait.

Noizbait berriz,
inoiz baizik,
orain, ezin,
ohartuko naiz,
beharbada,
esnatzeko garaiz.

Zaude argazki zaharra,
zaude ganbara honetan
omenaldi eta arrakalen artean.
Agur, deika ari zaizkit,
banoa urratsean,
maratila iltzatuko dut irtetean.

Gurdibide berrituetatik noa
lagunekin iturrietan elkartzera,
uretan joateko aginduta,
lepotik helduta edaten dugun artean,
zuri-beltza kolore bizitzat
duen argazkia ateratzera.

URTAROA FALTA DUGU

Ez dira antzarak itzuli
neguagatik ez ziren joan
ez zituen hotzak ikaratu

Ez dira itzuli antzarak
hotzak ez zituen ikaratu
ez ziren joan neguagatik

Antzarak ez dira itzuli
ez zituen ikaratu hotzak
ez ziren neguagatik joan

BELAUNIKOALDIA

Ez dugu besterik ikusi,
ez dugu besterik entzun,
orain garenetik erabat ezberdin izateko lain
ikusi eta entzun dugu.
Gureak ere belaunikoaldia izan behar zuen.
Zilbor-heste bat eten ziguten, beste bat josi.
Josi zizkiguten hildakoak,
nortasun agiri faltsuak,
ezkutalekuak, gutxietsien iraganak,
ulertzen ez gintuzten mapak,
lau hormatan zigorrak,
hizkuntza askotako hiletak.
Ginenak izateagatik,
zoriona su-etenetan ospatzeko
baimena baino ez ziguten eman.
Etorkizuna geu ginela esaten ziguten haiek
itxarongeletan zarratzen gintuzten,
baina guk oraina izan gura genuen,
eta ez etorkizuna,
konturatu baikinen
atzeratu egiten zigutela etorkizuna

iraganarekin bat egiteraino.
Mina sendatzeko legez orrazkera aldatzeko
ordua eskatu beharrari uko eginik, batzuek,
ametsak pilatzen jarraitu gura dugu
heriotzari gainezka egin asmoz,
maitasunak bete diezagun memoria,
ezustekoa bihur dakigun ogibide.
Giltzapean gordeta dugu
helburu apal eta lorgarrien tiraniari,
ezinezkoaren ospea lausotzearen aldekoei,
belaunikoaldia onartu ez eze
belaunpeko leungarriak erabiltzen dituztenei
aurre egiteko edabea,
bi osagai baino ez dituena,
mozkorrik iraunarazten gaituena.

AZKEN HITZA

Duela hogeita bost urte ezagutzen dugu elkar
eta haserretu garen guztietan
erantzun bera aitzakiatu didazu:
«Horrelakoa naiz eta ez naiz aldatuko».
Gehienetan ezin izan diot
zure epitafio horri jarraipenik eman,
batzuetan arrazoia duzulakoan,
besteetan aspertu egiten nautelako
amaiera bako borrokek.
Haatik, bart izan dudan ametsokerrak
arnasa gehiegi estutu dit
eta aurrerantzean, haserretzen garenean,
erantzuten ez badizut ere,
ametsokerra izango dut gogoan,
nolakoa ez dudan izan nahi.
Neure burua ikusi dut ametsokerrean
belaunikatutako jende mulko bati berbetan,
urregorrizko kadira lainoz eta kristalez inguratuan
izarak bezain bizar ile zuriz jantzia:
«Hala da, ez nator bat, izan liteke.

Baina ni gizajo horien lurretan,
euren onerako geureganatu genituen horietan,
egona naiz egon ez naizen guztietan
eta badakit ez direna gu bezain zoriontsu bizi,
badakit ez dakidalako
gure demokrazia desiratzen dutela,
katea amesten dutela diruzorrotik zintzilik.
Esan ez didatelako dakit
emakumeek eta gizonek
ez dutela elkar maite
guk geure buruak beste,
dohatsuak direla brontzezko podiumean.
Zin dagizuet sinetsi ez arren,
neure esku balego,
oparituko niekeela
inorena ez den guztia.
Ezagutzen nauzue, badakizue nolakoa naizen,
nire eskuzabaltasuna
kanpo-zorrak baino errukigarriagoa da,
ia neroni harritzerainokoa.
Gosea, lehorteak, hiesa...
horiek fedetxarrekoen erraizunak dira,
bai, gabeziaren bat edo beste dute,
baina ez da hain larria izango.

Akatsik ez dugunok, jakin dakigu,
bekaitza dela askoren benetako gaitzik larriena.
Hori da egia eta hauxe azken hitza.»

NEGARTIAREN AUHENA

Armada bentzutuetako hildakoak estaltzeko oihalak
ez dira nire malkoak menperatzeko lain.
Bihotzak zotina dit,
aulkian kulunkatzen zait
eten barik, ausartu ezinik:
orain orain orain... aldendu zaitez orain.

Baiezkoan nengoen,
baina ez dut zuek bezalakoa egiten nauen ezer.
Buruz ikasi nituen ikasgaiak
hitzez hitz errepikatzeko gai naiz,
ostera, ez ditut biren artean bereizten.
Tiroka erantzun diezue
laguntza eskaera guztiei eta, horrenbestez,
herrikideok auzokideok jendekideok,
entzuteko ahalegina zain duzuenok,
etsi dut eta banoa.

Ondoegi bizi gara iraultzaileak izateko.
Jantzi eta erantzi, arropak legez
etzaten gara aitzakietan zein aulkietan,

eskegitzen gara armairuetan edo etorkizunetan,
bat baino gehiago direnetz gure etorkizunak.
Eskubideak zergen ordaina direla
aldarrikatzen dugu bazkalorduetan,
suzko barrikadak bustitzen ditugu tabernetan.

Baiezkoan nengoen
baina ez dut zuek bezalakoa egiten nauen ezer,
etsi dut eta banoa,
ardura guztiak zuentzat.

EZ DA SINESGARRI NEGARTIAREN AUHENA

Errekastoak esango dizu non dagoen negartia,
beti hurkoei kontu eskean ibiltzen den bakartia,
ur gazia du emari eta lehorte egarribakoa ausardia.

Kopeta goibel, dena ezintasun, txarra ona bezain hitsa,
armetan eraginkorrena delakoan darabil hitza,
gezurretan doakio arnasa, estakuruetan bizitza.

Ustezko balentrien egia ez balitz hain hantua,
zilegi luke kontu eskea eta jotako lantua,
erantzukizunerako bihurtzen da apoarmatua.

Ekinaren ekinez azalean itsatsiko dizu kedarra,
mikaztuko zaizu umorea, ohitura bihurtuko gedarra,
zainetan barreiatuko zaizu, pozarekin etsaituko negarra.

Berba bakoitzarekin ahoratu ez dakizun behazuna,
altxa gora ezkutua, igurtzi iritzietan asuna,
belarri garunetan iragazkiak josi, zaindu maitasuna.

PISTOLA ESKATU DIO URTEGUNEAN

Pistola eskatu dio bere urtegunerako:
pistola luze, astun eta beltza.
Sakonera begiratuz belar artean,
panpinak liliputetzen oroitzen du,
irribarrea, eskuak eta hankak mugitzen ez zituzten
panpinak batailetarako biziarazten oroitzen du,
belaunak galgarik gabeko bizikletekin haserretu
eta aldapa itzeletan behera borrokatzen.
Afaritarako dei egin ostean
etxerantz lasterka oroitzen du,
behatz lodiek urratutako oinetako bustiak erantzi
eta erreka bazterreko abenturek isildu ezinik,
aulkian zutunik.
Zubi batetik erori, harritzarra jo eta
kokotsa zabaldu zuenekoa oroitzen du,
alderik alde odol-jauzia zeriola
baina ez zuela negarrik egin,
bizitzarako gogortu beharra zuela
deliberatu balu legez.
Jendaurrean hamaika biderrez

lotsarazi duela oroitzen du,
gitarra mutua eskuetan,
ustekabean, ispiluari begira,
mundua dantzara matxinatzeko
kantari aritzen zela aitortzean.
Damorriz oroitzen du
mina eta poza ez dituela egundo biki sentitu
munduratu zuenean izan ezik.
Pistola luze, astun eta beltza eskatu dio
hogei urte beteko dituen egunerako.

ILOBAK,
ZERUA ZER DEN AZALTZEN AHALEGINDU NAIZELAKO

Beraz
fedearen bidaia agentzietan
gehien eskaintzen den atsedenlekua
baino ez da

Beraz
begiekin batera lepoak
ariketa fisikoa egiteko darabilen aitzakia
baino ez da

Beraz
txikiegi gutxiegi sentiarazita
harrokeria tentetzen digun gangarra
baino ez da

Beraz
eskukadaka batu arren
egundo amaitzen ez den kotoigoxoa
baino ez da

Beraz
gurabeste hasteko baimena
ematen digun sabaia
baino ez da

ILOBAK, HERIOTZA ZER DEN AZALDU EZ DIODALAKO

Elizportaleko aurpegi serioen artean
gizon baten argazkia ikusi du
zutabe batean.
Hori da hil dena? galdetu dit.
Bai.
Eta nor da
eskuak atzean dituela dakarten gizon hori?
Hil denaren semea.
Eta hori ere hil egingo dute?
Nahi bai,
baina ez dut uste.
Eta ni hil egingo naiz?
Bai,
baina urte asko pasatuko dira.
Zenbat, hirurehun eta
berrogeita hamar mila?
Edo gehiago.
Nik ez dut hil nahi, osaba.

OIHUEN JABEAK

Jabeak
lotu egin beharko lituzke
oihu latz horiek.
Arriskutsuak dira
uhal barik kaleratzeko,
haginka egin diezaiokete
umeren bati.
Eta ez da komeni
umeek ezer ikas dezaten
beranduegi izan arte.

Oihu garratz horien jabeak
paseoan ateratzeko baimenak
egunean beharko lituzke,
horrenbesteko samin eragileak
mantso mantentzeko
ahalmena duela egiaztatu.

Erotzeraino soraiotzen nauten
oihu zakar horien jabeak
ez luke haserretu behar

ez kalean ez jendaurrean.
Oihu latz garratz zakar gehiago eragiteraino,
itxurak egin ditzala sikiera.

Zenbat oihu lakatz
entzuteko betebeharra dugun
begiratuko dut boletin ofizialetan.
Susmoa dut kopurua igotzeko
dekretua argitaratu dutena
udako oporrak profitatuz,
eta gutxi batzuek baino ez dutela
horren berri.

BEKOKILUNARI

Oi bekokiluna
besarkadek ere ez zaituzte destolesten
zurrun zurrun zurruna duzu laztana
lakar lakar lakarra agurra

Oi bekokiluna
eskuak poltsikoetan daroazuz lagunentzako
sakon sakon sakona duzu erresumina
likits likits likitsa damua

Oi bekokiluna
kontu eskeen zamari zoaz alderrai
aratz aratz aratza duzu ustea
alfer alfer alferra gandorra

Oi bekokiluna
ostrukaren gaitzak jota dagoen usoa dirudizu
sorgor sorgor sorgorra duzu mesedea
zalu zalu zalua aizuna

Oi bekokiluna
zein hilgarria duzun samina
eta zein ezdeus ezdeus ezdeusa

BIDERAKO OGI-PAPURRAK

Erditu nituen ogi-papurrak umotu egin zaizkizu,
su eman eta ke-seinaletarako ere ez dizute balio.
Zugatik izandako lo-sakonak
galbahe ameslarietako urre-pinportak.
Belarritik belarrirainoko bidaian
geldialdirik egin ote zizuten nire esanek,
hartuko ote baten batek ostatu,
fundatuko zizuten hiririk basamortuan?
Profitatuko ez duzun bidezidorra garbitzea,
ahalegin etsigarria nirea.
Talaia orkatilen pare mantentzen duzu?
Lekuz aldatu duzu amorrua
baina atzamarraren puntan
elefante hegalariak ikusten jarraituko duzu,
kostako zaizu azkena izanik dominoari eustea.

ARGIBIDEAK

Non zapaldu, non gelditu
noraino luzatu pausoa,
zer ibili, nora zaindu.
Lagunen aurrean gutxiagotzen ninduten mandatuak,
ume-aroan zaharkitutako alfabetoan
idatzitakotzat nituen zure argibideak,
garbigailuko uretan irakurtezin bihur zitezen
poltsikoetan ostentzen nituenak
bihotzarekin josten zenizkidan poltsikoetan,
aintzat hartu gabe
zenbatero bilduko nintzen zure askara,
aintzat hartu gabe
hotza uxatuko zidala zure epelak,
lehorteen berri ez zuela ezagutuko nire ahosabaiak.
Zeinek gorago aurka egin ur-lasterrei,
zeinek sakonago burua sartu lehoi basaren ahoan,
bulkaden ezjakin zoriontsu ginen sasoian.
Eta txotxongiloen hariak
errugabetzen ditudan egunotan,
harri bakarrarekin ordeka zeharkatzeko
gai naizela konturatuta,
eskuak poltsikoetan zahartzea erabaki dut.

UKATU EGIN BEHAR NIZUN ZORIONA

Ukatu egin behar nizun zoriona,
maitatu ditudan guztiak ahantzi
eta bakarra inposatu behar nizun.
Maitatu duzun
bakarra,
joan zitzaizun
bakarra,
bakardadean bakartiago
esnarazten zaituena.
Fidela izateari utzi ei diozulako
ukatu egin behar nizun zoriona,
haragia azalaren gainetik
izan dudan honek,
altzoan daroazun honek.

ATZAZALETAN

Atzamarrak nekatu egiten zitzaizkion
egunak kontatzen hasten zen bakoitzean.
Nork bere buruarekin elkarrizketa izatea
eroen gaitza dela diote sekula ume izan ez direnek,
eta berak ez zerabilen besterik akorduan:
Egutegiek zertan egiten ote dute mesede?
Horren garrantzitsua da bizi dugun egunak
zenbakia eta eguna izatea?
Zergatik dira batzuk besteak baino egunago?
Beharrezkoa delako, noski.
Beharrezkoa baita egun zehatzen esperoan egotea;
bizitza osoa egun zehatzen esperoan ematea:
eskoletara hasteko lehen eguna,
lehen musurako eguna,
maitasuna egiteko lehen eguna,
hamazortzi urte betetzekoa,
lana aurkitzekoa, etxea erostekoa, ezkontzekoa,
familia osatzekoa, jubilatzekoa eta... hiltzekoa.
Eta zergatik ez datoz egutegietara
bizitzea erraza zeneko egun haiek?
Zergatik ez dakartzagu efemerideetara

jolas egitea beste derrigorrik ez genuen
sasoietako egun haiek?
Atzamarrak nekatu egiten zitzaizkion
egunak kontatzen hasten zen bakoitzean.
Urteak pilatzen zitzaizkion atzazaletan.
Horixe pilatu zitzaion urteotan guztietan,
egunak, urteak,
besterik ez.

ALDAMIOKO GIZONAREN BURUAK

Aldamioko gizonaren buruak
lurra kolpatzen du
behin eta berriro
begiak itxita kolpatzen du
behin eta berriro lurra
zabaldu nahi izango balu bezala
behin eta berriro kolpatzen du
hurrengo eroriko denak
ez dezan minik hartu
lurra biguntzen du
aldamioko gizonaren buruak
behin eta berriro
kolpatzen du
hurrengoak
behin eta berriro
lurra
gizonaren buruak
biguntzen du hurrengoak
kolpatzen du gizonak
behin eta berriro

ESKEAN

Abenduko gau batean
izarrik ez zela
hurbildu nintzen eskean
ohi bezela.

—Bihotz deslaien antzera
natortzu altzora.
—Etsitakoen artera
zatoz inora.

—Ez duzu maitasunik
barruan gordeta?
—Berandu zatoz jadanik
hustu naiz-eta.

—Zer falta duzu laztana,
hain zara ederra!
—Gezurrarentzat labana,
motzaren herra.

—Motza edo itsusia
eder lirateke.
—Ez mozorrotu egia
hutsaren eske.

—Xedetzat ez dut gorputza
ez bada arima.
—Zure aitzakia harroputza
zure biktima.

—Itxaropenik ez duzu
maitasunarengan.
—Merke datozen bi musu
badoaz hegan.

—Galdu duzuna eskura
itzuliko balitz.
—Hiztegi osoa zen hura
ez ziren bi hitz.

—Maite zaitut esan eta
betor bizipoza.
—Bete gabeko apeta
ezin dut goza.

—Zein izan duzu ebasle
asmo okerrekoa?
—Bat beti dena garaile
ez menpekoa.

—Jo behar diozu handia,
itxi ukabila,
galdu dezala bizia.
doala bila.

GALTZAILEA

Oparotasunak orekatzen nauen galtzailea naiz.
Badakit arrotza zaidan biziera dagoena,
izutzen nauten biztanleak direna,
ihesi noakiela distantziak hurbiltzeko beldurrez,
urteak daroatzadala ezleku,
ezjende horien berririk jakin gurage.

Tarteka, egunak erreskadan eta
ordena beldurgarrian doazela,
lortzen dut begi bat zabaltzea edo
lagun baten biderako kinkela eskuartean izatea:
euskalduna izan arren
ez naiz egundo ziega batean usteldu,
ez naute torturatu,
ez didate hurrekorik ekintza armatuan hil.
Sufrimenduaren nire aldarria
ez doa xuxurlatik gora.

Zer dela-eta orduan
ez naizena puztu behar hau?
Nigan ez dakusat

marjinatu, hirugarrendutako,
etxe, auto, etorkizun zein paperbakorik,
ez nago bakarti samaldan,
eta hala ere galtzaile sentitzen naiz,
eta hala ere garaile naiz ez dutenen aldean.

Bihotzak ihes egiten dit korrika batean,
ez duela ezer ulertzen,
ez dakiela odolari zein norabide eman.
Ostera, handiusteak lanbrotzen nauenean,
kantu zaharretako tragedien ahaireetan
mintzo naiz, epikotasuna xede.

Lirudikeenez, batailan ematen ditut
eguneko orenak,
azala, haragia eta arima zanpatzen dizkidaten
arerio garaiezinen aurka.
Lirudikeenez, saminak hartua dit biziera,
ene sufrimendua latzena da benaz;
eta miresgarria, hala ere, oztopo guztioi
aurre egiteko erakusten dudan adorea.

Agian gezia behar dut eztarritik behera,
zain-hezur guztiak urratu eta

garunean sartuko zaidana,
egunero mingorra gogorarazteko modukoa.

Galtzeak mina ematen dit, bai,
ez garaitua izateagatik, ez bada
garailea dena izateagatik.

ALBOAN

Itsumustuka ibilitako
basabideetatik nentorren,
zaku bete hutsune,
bidea bakarrik egitearen beldur,
gabezien sakoneretarako neurgailua eskuetan,
bidegurutzeetan agurtzen nituen
bidaide askoren maitale eginda.
Amaiera hasiera bezain urrun
zukeen beste biderik
ez hartzeko erabakia hartu nuen hartan,
alboan zinen, orduan ere.
Haizeak ez, beste zerbaitek
ekarriko zuen hazia,
zure izena ereitera
nire begietan,
lehenengo eskuinekoan,
ezkerrekoan gerora.
Nire begietan
barrea, bularrak, ipurmasailak
ausartagoak, harroagoak, askeagoak dituzu,
ninietan aterpetzen zaizkit

ispilutik arbuiatzen dituzunak.
Oharkabean ere bizi daitekeela
erakusten didazulako
aurrez inork inoiz esan gabekoak
asmatu gura dizkizut,
masaila laztandurik begitik begira
esaten dizkidazunen neurrikoak,
hezur eta haragi ditudanak.
Ez itsasoa, ilargia, loreak, mendiak,
izarrak, zaldi zuriak edo gau epelak,
lehenago ere gehiegitan laidotu ditut,
badakit ez dizutena azala hozkirritzen,
badakit elkarri begiratzen diogunean
sakonago ari garena,
ez dugula gorputzen arteko distantzia
berba hutsen errenkadetan laburtu beharrik,
isilean errazago trukatzen ditugula
azala eta barruko guztia,
musika, literatura.

Izerdia egingo dut gure maitasunak
ez dezan jakin zer izan nagusitzen denean,
nahiago izan dezan ibilian hazi,
lanbidea aldatu egunerokotasunak

behatzetik burura noiz herdoilduko beldurtzean,
ezustekoak ponpatu diezaion bihotza,
ez diezagun nekeak lozorrotu.

AUZO BERRIREN BATEAN

Auzo berriren batean
itxarongela bat kausitzera,
mende amaitugabera,
ogi-papurrekin,
itzuli nahian nabil ezarian.

Oin-zola higatuak aldean,
helmugen esperoan,
maparik gabe, hain herabe.

Aro ezezagunetan
itsaso barea, ezustean
gogoz oldartuko zait
ezetzen antzera
ozen:
Nor haiz?